

## AUTOEBALUAZIOA

## II. MODULUA: FARMAKOZINETIKARA SARRERA

1. Farmakozinetikaren erabilera nagusiak aukeratu
  - a) Dosi erregimen egokien zehaztapena (dosia era dosi tartea), eraginkortasun terapeutikoa maximizatzeko era eragin desiragaitzak minimizatzeko
  - b) Toxikologia: farmakoen metaketa ehunetan aztertu eta honen erlazioa prozesu toxikoekin
  - c) Hainbat organoen funtzionalitatea ebaluatu, adibidez giltzurrun funtzionalitatea inulinaren edo kreatininaren argitzapena aztertuz
  - d) Erantzun guztiak zuzenak dira**
  
2. Zer da prozesu zinetiko baten abiadura konstantea?
  - a) Prozesu zinetiko hori jasaten duen farmako kantitatea denbora unitateko
  - b) Farmako kantitatea prozesuaren abiadurarekin erlazionatzen duen konstantea da**
  - c) Farmako kantitateak prozesuaren abiaduran edukiko duen eragina zehazten du
  
3. Lehen mailako prozesu batean
  - a) Prozesuaren abiadura konstantea da
  - b) Abiadura farmako kantitatearen menpe dago**
  - c) Erlazio lineala dago farmako kantitatearen eta denboraren artean
  
4. Farmako batek zinetika lineala dauka baldin eta:
  - a) Xurgapen, banaketa eta eliminazio prozesuak 1.go mailakoak badira**
  - b) Erdibizitza, argitzapen edo banaketa bolumena bezalako parametro farmakozinetikoak ez dira konstanteak, kontzentrazio menpekoak baino
  - c) Dosia aldatzerakoan kontzentrazio plasmaticoak ez dira modu proportzionalen aldatzen
  - d) Dosi-menpekoak edo kontzentrazio-menpekoak ere deitzen zaie

5. Zer ahalbidetzen dute eredu fisiologikoak?
- a) Farmakoaren kontzentrazioen eboluzioa ehun ezberdinetan ezagutzea
  - b) Beste animalia espezieetara estrapolatzea
  - c) Aldaketa fisiologikoak eta patologikoak direla eta aldaketa zinetikoak aurrikustea
  - d) **Erantzun guztiak zuzenak dira**